BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

38

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 12koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 1943/11 prozedura arruntari buruzko administrazio-espedientea bidaltzea xedatu eta interesaturik egon daitezkeenak epatzeko dena.

1943/11 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion espedientea –prozedura arrunta– bidaltzeko eskatu du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak. Errekurtso hori Justizia eta Herri Administrazio Sailak 2011ko abuztuaren 23an emandako Aginduaren aurka jarri zen. Aurkaraturiko aginduak ezesten zuen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren maiatzaren 3ko Ebazpenaren kontra aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa. Ebazpenak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren baitan, Administrari Laguntzaileen Kidegora sartzeko hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratzeko agintzen zuen.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak eskatutako administrazio-espedientea bidaltzea.

Bigarrena.–Aipatutako espedientean interesen bat izan dezaketenak epatzea, bederatzi eguneko epean ager daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salara, 1943/11 prozedura arruntean alderdi modura aurkezteko aukera izan dezaten.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen iragarki-tauletan argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 12a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.